

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
78 zenb.
2022ko azaroa

LURSAILETAKO MUGAK ZEHAZTUZ

Anoetako Udalak landa eremuko
lursailak geolokalizatzeko proiektuari
eman zion hasiera azaroaren 8an

132 lurjabetatik 114k hartu dute parte bilera hauetan



EUSKARAREN PILULA

ERDARAKADAK

Euskaraz ari garenean, askotan erabiltzen ditugu gaztelaniatik hartutako hitzak eta espresioak, euskarazko espresio jatorrak baztertuta. Hemen dituzue horietako batzuk:

1. *Siesta ederra* **bota** dugu arratsaldean.
2. Arazo hori 16 urteko gazteengan **ematen da**.
3. Hortik dabil ikastolako zuzendaria? Ez, gaur **Donostiatik** dabil.
4. **Beste egunean** horri buruz hitz egin genuen taldean.
5. **Posible da** Aneren laguna ere festara etortzea.
6. Osinzulorako bidea **moztu** egin behar izan dute.

HONELA HOBETO:

1. Gaztelaniazko "echar la siesta" esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz "siesta egin" da jatorragoa. Goiko esaldia honela esango dugu: *Siesta ederra* **egin** dugu arratsaldean.
2. Gaztelaniazko "se da" aditzaren kalkoa da. Euskaraz jatorragoa da "gertatzen da" aditza erabiltzea, beraz, honela esan beharko genuke: *Arazo hori 16 urteko gazteengan* **gertatzen da**.
3. Gaztelaniazko "por ahí" esamoldearen kalkoa da, baina euskara jatorrean honela esango dugu: **Hor** dago ikastolako zuzendaria? Ez, gaur **Donostian** dabil.
4. Hau ere gaztelaniazko "el otro día" esamoldearen kalkoa da. Euskaraz esateko modu zuzena hau da: **Lehenago egunean** horri buruz hitz egin genuen taldean.
5. Gaztelaniazko "es posible" esamoldea behin eta berriz erabiltzen dugu, euskarak baliokide jatorragoak izan arren: **Baliteke** Aneren laguna ere festara etortzea. **Litekeena da** Aneren laguna ere festara etortzea.
6. Gaztelaniazko "cortar" zuzenean itzultzen dugu sarritan, baina euskarak badauka bere-berea den forma hori esateko: Osinzulorako bidea **itxi** egin behar izan dute.

BIZTANLEAK

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK (urriak 24)	1.037	1.082	2.119
JAIOTZAK (ekainaren 30etik urriaren 24ra)	Ireber, Marina	Lucas Javier, Taxio, Kai, Irai, Danel, Enzo	8
HERIOTZAK (ekainaren 30etik urriaren 24ra)	Antonia	Jose Luis, Felix, Alonso, Ignacio, Domingo	6

LANDA GARAPENA

Landa eremuko lursailen geolokalizazioa

Anoetako Udalak proiektu berria du eskuartean: landa eremuko lursailen geolokalizazioa. Landa eremuaren ezagutzaren zati handi bat eta, beraz, baita lursailen mugarriena ere, adinekoengan dago. Horregatik, garrantzitsua da ezagutza hori jaso eta muga fisikoez gain, altxaera topografiko bidez dokumentatuta uztea. Proiektu honen bidez, adinekoen eta ondorengo belaunaldien ezagutza partekatu eta zubi lana egin nahi da. Anoetako Udalaren ustez, ezagutza da kudeaketarako eta erabilerarako lehen pausuetakoa.

Azaroaren 8rako, herriko landa-eremuan lursailen bat duten jabeak bilera batera deitu genituen, Anoetako Auditorioan. Bertan, proiektuaren nondik norakoak azaldu ziren eta lurjabe bakoitzari Gipuzkoako Katastroko datuen arabera bere jabetzen fitxa aurkeztu zitzaion. Mugak behar bezala azalduko daudela uste izanez gero, zuzenean egingo dira altxamendu topografikoak. Baina, mugak oker daudela uste izanez gero, ondoko mugakideen adostasunarekin muga horiek aldatu eta behar bezala azalduko dira.

Proiektuak 2023ko azaroa arteko iraupena izatea aurreikusten da. Geograma enpresak irabazi zuen proiektua kontratuaren lizitazioa eta Anoetako Udaleko Ingurumen eta Landa Garapen sailak egingo dio jarraipena. Udalak 48.000 €ko inbertsioa egin du proiektua aurrera ateratzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 10.000 €ko diru laguntza izango du.



Irakin proiektua

Dagoeneko martxan dago Abraham Olano kiroldegiko sukalde berria. Duela hilabete batzuk irabazi zuen kiroldegian sukaldea jartzeko esleipena Iñigo Estanga herritarraren Irakin proiektuak, eta aste honetan zabaldu ditu ateak. Gune berri honetan janaria prestatu, ontziratuta eta saldu egingo dute, eta litekeena da banaketa ere egitea.

Ekimen honen bidez, tokiko elikadura ardatz duen gunea sortu nahi izan du Anoetako Udalak. Proiektu berritzailea da, egokituta baitago egungo kontsumo ohituretara eta beharretara. Herriko ekonomian eragitea, lanpostu zuzenak sortzea eta tokiko elikadura katea indartzea dira, besteak beste, proiektuaren helburuak.

Bost urterako (bi urte luzagarrirekin) esleitu zaio zerbitzua Irakin proiektuari, eta aurrez aipatutako helburuak lortzeko hainbat baldintza bete beharko ditu: lehen hiru urteetan produktuen %60a 150 km-ko erradioan ekoitzia izan beharko du (Euskal Herriko zazpi lurraldeak hartzen ditu erradio honek); hirugarren urtetik aurrera erabilerak %75ekoa izan beharko du, eta produktuen %10 eskualdekoa izan beharko da. Honez gain, proiektuaren esleipen prozesuan tokiko elikagai ekologikoen erabileran azpimarra jarri zen.

Gunearen egokitzapenerako 71.010 euroko inbertsioa egin du udalak; eta proiektuak 39.225,82€ko diru-laguntza jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen sailetik. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren EREIN diru-laguntzetan 19.905,45 €-ko laguntza eskuratu da.



EUSKARA

Parte hartu EUSKARALDIAN!



Zer da Euskaraldia?

Euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako hiztunen arteko ariketa soziala da, ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko.

Zein da Euskaraldiaren helburu nagusia?

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

Noiz egingo dugu Euskaraldiaren ariketa?

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da ariketa, baina hartutako konpromisoari urte guztian zehar eusten saiatuko gara.

Zer egin behar dut parte hartzeko?

Izen-ematea irekita dago jada. Esteka honetan sartuta eman dezakezu izena: <https://izenematea.euskaraldia.eus/>

AUKERATU ZURE ROLA!

BELARRIPREST naiz

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.



AHOBIZI naiz

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean.



EUSKARALDIAREKIN LOTUTAKO EKIMENAK:

Azaroaren 24an (osteguna), Lorea Agirreren *"Euskara, feminismoa eta beste bidaide batzuk"* saioa, liburutegi ondoko balioaniztun gelan, 18:30ean.

KULTURA

Aurten ere indusketak Basagain Burdin Aroko herrixkan



Aurten ere Aranzadi Zientzia Elkartearen bidez etortzen diren boluntarioen bisita izan dugu Anoetan. Urtero bezala, indusketak egin zituzten 3 astez irailean Basagainen. Eskualdeko ikastetxe batzuk igo ziren bisita gida-tuak egitera (Anoetako, Alkizako eta Villabonako eskolak, kasu), eta larunbat goiz batean bisita irekia antolatu zen (ikus argazkia).

Indusketa lanak egiteak ekartzen dituen gastuak (kamionetaren alokairua, gasoila, boluntarioen otorduak etab.) guztira 10.420 € dira, eta 2022an Aldundiak %100a lagundu du diruz. Xabier Peñalver indusketa lanen zuzendaria ere musutruk etortzen da duela 28 urtetik, herrixka aurkitu zenetik, alegia.

LIBURUTEGIA

NEGUKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera: 16:30-19:30

Ostiraletan: 11:00-13:30



LIBURU BERRIAK

Irakurtzeko gogoia pizteko moduko liburu berriak dauzkagu liburutegian, haur, gazte zein helduentzako.



GOMENDIOAK

Helduentzat euskaraz:

- Azken etxea / Arantxa Urretabizkaia
- M ama* eme* ume* / Estitxu Fernandez, Erika Lagoma
- Berriz zentauro / Katixa Agirre

Helduentzat gaztelaniaz:

- Violeta / Isabel Allende
- Al paraíso / Hanya Yanagihara
- Caso clínico / Graeme Macrae Burnet

Gazteentzat:

- Gezurra / Care Santos
- Los crímenes de Chopin / Blue Jeans
- Ane (Txandaka Bilduma) / Alaine Agirre

Haurrentzat:

- Hari ikusezina / Miriam Tirado
- Naian / Nerea Loiola
- Futboleroak 7 / Roberto Santiago

EKINTZAK

Urriaren 13an hasi genituen ipuin kontaketak Miriam Mendozarekin. Lehen saioan HHko haurrak egon ziren eta primeran pasa zuten!

Guztira lau saio izango dira, denak ostegunetan arratsaldeko 18:00etan. Bertan kontatutako ipuinak mailegagarri dituzue liburutegian.

Hurrengo data: AZAROAK 24 (LH1/LH2)



PAREKIDETASUNA

ELKAR EZAGUTZEAREN ONENA!

Datorren **azaroaren 20ean**, familia autoktono bat eta migratzaile bat mantel baten inguruan elkartuko gara berriro. Bazkalorduan elkartuko gara bi kulturak hurbiltzeko eta beste familia-rekin batera zapore, ezagutza, interes eta esperientzia komunak partekatzeko. Horrela, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeaz gain, elkar hobeto ezagutu eta lagunkide berriak egin ahal izango ditugu gure herri eta hirietan kultura aberatsagoa eta anitzagoa bultzatzu.

Urtero bezala, bi familiek dinamizatzailerik baten laguntza izango dute igandeko bazkaria prestatzen laguntzeko.

Zure bizilagunak janariz betetako mahai baten inguruan ezagutu nahi badituzu, eman izena eta

parte hartu. Horretarako, zure familiako kide bat edota zure bizitzako lagun bat edo gehiago ekartzeari besterik ez duzu.

Dinamizatzailerik edota familia bezala eman dezakezu izena. Parte hartzeko, **migrazioa@tolosaldea.eus** helbidera idatzi. Hala ere, zalantzaren bat izanez gero edo norbaitekin hitz egitea nahiago baduzu, 646057080 telefono zenbakira deitu (Tolosaldeako Migrazio Saila).



HILEKO OSASUNTSUA

Iazko abenduan martxan jarri zuen Udalak **HILEKO OSASUNTSUA** kanpaina, hilekoaren odola jasotzeko produktu alternatiboen informazioa emateko (hileko kopak, konpresa berrerabilgarriak eta hileko kuleroak, kasu).

Horren harira, 100 hileko-kopa inguru banatu ziren plazan egun batean, doan. Erakusketa bat ere ikusgai egon zen liburutegian, gai honen inguruko datu esanguratsuak azalduz.

Ikastolan ere tailer batzuk antolatu ziren DBH-ko ikasleentzako, Marigorri Elkarteko Veronica Satrustegiren eskutik.

Aurten gaztelekua berriro zabaldu denez, gaia esku artean hartuko dugu gaztelekuan ere, eta tailerren bat egingo da ikasturtean zehar.

Hileko-kopa asko erosi zituen udalak kanpaina honetarako, eta urtero horiek banatzen joan-

go gara gaztetxoaren artean eta emakumeen artean. Beste banaketa orokorra martxoan egingea aurreikusten dugu, plazan, baina lehenago eskuratu nahi izanez gero, udaletxera jo besterik ez duzue egin behar, eta Parekidetasun Sailean emango dizuete, doan.

Hileko produktu alternatiboekin gure osasuna eta planetarena zaintzen dugu.

ANIMA ZAITEZ ERABILTZERA!



GAZTERIA



Ikasturte hasierarekin bat gaztelekuak ateak ireki zituen urriaren 4an, gogo eta ilusio handiz.

Gaztelekura hainbat adinetako gazteak etor-tzen dira LH5 etik hasita eta DBH 4ra bitarte. Azkeneko hauek animatu nahi ditugu gehia-go etorri daitezen, batzuetan faltan botatzen baititugu.

Gazteen aldetik oso harrera ona jaso dugu, eta momentu batzuetan aforo guztia bete-tzera iritsi gara. Egunero gazte pila gertura-tzen da zerbitzura, eta hau oso pozgarria da.

Ekintza aldetik, aniztasun handikoak eskain-tzen ditugu: ping-pong txapelketa, mahai jo-lasak, karta jolasak, filmak ikustea, kirolarekin lotutako jolasak...

Bestalde, aipatu beharra dago, Irurako gazte-lekuarekin elkarlana bultzatzen ari garela eta AZAROAREN 26 an elkartuko garela. Bi gazte-lekuko nerabeak jolasean arituko dira Irurako frontoian, arratsaldea jolasten igarotzeko. Gainera, dinamika batzuk elkarrekin egitea aurre ikusten dugu.

Honekin batera gogorarazi asteartetik larun-batera irekitzen dugula zerbitzua, eta gazte guztiak animatu nahi ditugula gu ezagutzero etor daitezen.

KIROLDEGIA

Dagoeneko martxan gaude!

Ikasturtea tope hasi dugu gimnasioan, 275 bazkideekin. Bertan, indarra hobetzeko eta kardioa lantzeko makinak dituzu zure esku.


Bestalde, hainbat ikastaro antolatu dugu, Karlos, Iñaki eta Aneren eskutik. Partaideen kopurua hau da talde bakoitzean:

	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK
RITMIKA	14	2
CROSS TRAINING	13	6
CYCLING	6	1
TONIFIKAZIOA	44	
3. ADINA		7
ZUMBA	21	

Ez bazara oraindik animatu abenduan berriz izen- emateak irekiko dira urtarrilean hasteko.

Oriano **KIROLDEGIA**

ZURE AUKERA, KIROLDEGIA!



LOATZO

Xexili eguna

Mugimendua, melodia, erritmoa, isiltasuna, itxarotea, adimena, errespetua, inprobisazioa, lagun giroa, ordena...zenbat hitz, elementu eta egoera ezberdin bizitzen ditugun musikaren bitartez.

Bizitzan musikak duen lekua ezagutarazi nahi dugu aldiro Loatzo Musika Eskolan. Horregatik, gonbidatzen zaitugu, kalejirak eta kontzertuak ikusi, entzun eta goatzera. Horrela, Xexili Egu-



na dela eta, aurtan **Anoetan Loatzo Musika Eskolako txistulariek** kalejira bat egingo dute herria girotuz **azaroaren 22an arratsaldeko 18:30ean plazatik** hasita.

Aurtan Loatzo Musika Eskolaren 20. urteurrena dela eta, adi egon ikasturtean zehar egingo ditugun ekimen ezberdinetara!

GORA XEXILI EGUNA!



EUSKAL JAIA

Jaten dugunetik herria eginez



Aurtengoan hamabosgarrena izan du Euskal Jaiak. Hamabosgarrenez hartu dugu plaza eta hamabosgarrenez aritu gara hausnarrean, aurtengoan elikadura sistemaren inguruan.

“Zure platerean hasten da mundua” doku-mentalaren bidez eman genion egitarauari eta esaldi horrek iradokitzen duen horren inguruan antolatu genituen ondorengo egunak ere. Ostiralean Sarobe baserrira egin genuen bisita eta eskerrik asko, beste behin, Ana eta Gregoriori beraien baserrian hain goxo hartzeagatik.

Eskerrik asko, baita ere, beste urte batez, egun hau aurrera ateratzeko auzolanean aritu zareten guztioi eta ekitaldietan parte hartutakoei. Baita, goizean goizetik, poltsa hartuta azokan erosketak egiten aritu zinetenoi ere.



Beste urte betez azokak bizirik jarraitzen due-la erakutsi genuen eta, pixkana, Anoetako plateretatik eta azokatik mundua eraldatu daitekeela sinetsi ere bai.

Aurten, azokaren bueltan, bagenuen berrikuntza bat ere. Izan ere, animaliak plazara ez jaistea erabaki genuen eta horren ordezt euskal jaiak bultzatu asmo dituen balore horien transmititzeko jolas-gunea antolatu genuen. Arrakasta izan zuenik ezin ukatu!

Ardo dastaketa, txekor-jatea, herri-kirolak, erromeria... Nahi beste gozatuta etxeratu ginen, datorren urterako indarberritzera.

EUSKAL JAI BATZORDEA



MATRAKA

AZAROAREN 25EAN
KALERA!EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ

Azaroaren 25a indarkeria matxistaren aurka-ko eguna da, eta beste behin ere kalera aterako gara Anoetako mugimendu feministako kideok.

Badakigu jendarte matxista batean bizi garelara, eta emakumeon aurkako indarkeria estrukturala dela, bizitzako aspektu guztietan jasaten duguna. Izebergaren punta dira emakumeen erailketak, eta aurtan, hain zuzen, hiru emakume hil dituzte emakume izate hutsagatik. Horrez gain, egunero-egunero jasaten ditugu erasoak, batzuk intentsitate handiagokoak eta beste batzuk, baxuagokoak. Nazkatuta gaude!

Hori horrela, beste behin ere Euskal Herriko kaleak hartuko ditugu azaroaren 25ean indarkeria matxistaren aurka, eta autodefentsa feminista aldarrikatuko dugu indarkeria matxistari erantzuteko erraminta gisa.

Horrez gain, gizonak ere interpelatuko ditugu, zuen ardura delako emakumeak ez erasotzea eta zuen inguruko gizonen eraso matxistaren aurrean jarrera aktibo izatea.

Azaroaren 25a borroka eta salaketa eguna izango da, eta indarkeria matxista salatzeke elkarretaratzea egingo dugu 19:00etan, herriko plazan. Ondoren, herriko emakumeak elkarrekin biltzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko bertso afaria antolatu dugu. Pandemiak etendako haria berreraikitzen hasteko parada izatea nahiko genuke.

Behin eta berriz errepikatu dugu sistema kapitalista patriarkal emakume otzanak behar dituela, esanekoak, ahulak, eta horretarako, ezinbestekoak dituela indarkeria mekanismoak. Gu, ordea, ez gara geldirik geldituko. Batu zaitez antolakuntza feministara, eta batu zaitez borroka feministara.

**AZAROAREN 25EAN KALEAN
IKUSIKO DUGU ELKAR**

**ERASORIK EZ ERANTZUNIK
GABE!**

**ERASOEN AURREAN
AUTODEFENSA FEMINISTA!**

ANITZ DANTZA TALDEA

Kaixo!



Ilusio handiz ekin diogu Anitz Dantza Taldeko kideok 2022-2023ko ikasturteari. Izan ere, urriaren 3an eman genion hasiera kurtso berriari, eta era guztietako dantzak irakatsi zein ikasteko irrikitan gaude.

Aurtengo honetan 140 dantzarik eman dute izena, 11 talde denera eta 6 dantzari izango ditugu irakasle: Amaiur, Iraia, Irati, Itziar, June eta Leire. Bestalde, dantza ikastaroak auditorioan eta Hozpeleko lokalean izango dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu dantza taldeko ikasleei, gurasoei, Anoetako Udalari eta Anoetako Talogileei.

Ikasturte hasiera honeta, Euskal Jaia-ren aurkezpen ekitaldian parte hartu genuen, Loatzo Musika Eskolarekin eta Kukuak Kantuz abesbatzarekin batera.

Besterik gabe, klaseetan eta plazan dantzan ikusiko dugu elkar.



KUKU ELKARTEA

Pilota eskolak ikasturte berriari ekin dio




Udara ostean, urtero moduan hasi berri da pilota denboraldia eta beste behin gogotsu ekin diogu jardunari.

Aurtengo ikasturtean, aurrebenjaminetik hasi eta infantilak bitarte 40 pilotaritik gora daukagu, lau mailatan banatuta.

Txikienek beraien lehen pilotakadak jotzen diharduten bitartean, bada jada partidetan murgilduta dabilenik ere.

Ekaina bitarte hainbat txapelketa jokatzeako aukera izango dute: Gipuzkoako errendimendukoa, eskolartekoa eta Ataria txapelketa, esate baterako. Guztietan helburu nagusia pilotaz gozatzea izango da.

Bestalde, aipatzekoa klubeko kide diren Luisa anaiak paleta gomazko lehen mailan dabilatzala buru belarri, Gipuzkoako pilotari onenen aurka lehian.



ANOETAKO HAURRESKOLA

Jolasak = garapena



2022-2023 ikasturtera arte 3 epealditan zabaldu izan ohi da izen-ematea, baina hemendik aurrera izen-ematea edozein momentutan egitea posible izango da: izen-ematea egin eta 10 egunetara haurreskolan hasteko aukera izango da.

ditzakete, eta inolako oztoporik gabe mugitu daitezke.

Gure helburuetan:

- Haurraren garapen osoa bilatzen da (0 urtetik 2 urtetara).
- Mugimendu librearen jarraitzaileak gara. Era honetan, haurraren autonomia errespetatzen dugu.
- Gertuko haurreskola da, hots, familiarra eta konfiantzazkoa.
- Aniztasuna errespetatzen dugu.
- Instalazio egokiak ditugu, haurren adi-naren arabera edota beharren arabera egokituta. Bertan jolas desberdinak egin

- Gelak beharren arabera birmoldatzen ditugu, "txoko" desberdinak erabiliz: sukalde txokoa, lasaitze txokoa, korro txokoa etab. Sehaska gela ahaztu gabe, noski.
- Material aberatsa eta jasangarria, adina eta beharren arabera egokituta. Egiten ditugun esperientziazio ekintza desberdinak garatzeko proposak.
- Kuotak familiaren errentaren arabera egokitzen dira.

San Juan kalean aurkituko gaituzue. Gurekin harremanetan jartzera gonbidatzen zaituztegu.

Herritarroi eskerrak eman nahi dizkizuegu 2004. urtetik gurekin izan zaretelako.

Ondo izan!

IRATXULO EUSKARA TALDEA

Kaixo denoi!



Azaroaren 18an hasiko da Euskaraldiaren 3.edizioa, herritarren hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa.

Aurten, lehen aldiz, ariguneak ere jarriko ditugu martxan. Zer ote dira ariguneak? Galdetuko duzue batek baino gehiagok. Horra ba, definizioa: **euskaraz eroso jardungo garen espazioak**. Herriko saltoki gehienak **ariguneak** izango dira (euskaraldiak irauten duen bitartean hori jakinarazten duten kartelak egongo dira establezimendu horietan), eta horrek esan nahi du bertan lanean ari denak euskara ulertzen duela, eta beraz, euskaraz hitz egiteko aukera izango dugula nahi izanez gero.

Ariguneez gain, norbanako gisa euskaraldian izena emateko aukera izango dugu, eta orain arte bezala, **belarriprest edo ahobizi** rolak aukeratu ahal izango ditugu. Gogoratu rola-
ren aukeraketaren **gakoa ez dela gaitasuna, jokaera baizik**. Ahobizi izatea aukeratzeko ba-

duzu, euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu. Euskara ulertzen duela ez dakizunean ere euskaraz egingo duzu lehen hitza, eta euskara ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu.

Helburua ahal den guztietan euskaraz egitea izango da. Belarriprest baldin bazara, hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu, eta zuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Jarrera horren bidez erabilera handituko duzu.

Norbanako gisa <https://izenematea.euskaraldia.eus/> webgunean eman dezakezu izena, eta nahiago baduzu, izena emateko zein txapak jasotzeko aukera izango duzu, azaroaren 17an, 18:00etik 20:00etara, Anoetako plazan. Edozein galdera edo zalantza izanez gero, iratxuloeuskarataldea@gmail.com helbidera ere idatz dezakezu.

Alda ditzagun hizkuntza ohiturak Anoetako euskalduntzen jarraitzeko!

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

Gipuzkoako Grafikagintzan indartsu atera gara grebara

Borrokari eutsi behar diogu!

Gipuzkoako grafikagintzako langileak, irailan eta urrian egin genituen lau greba egunetan, indarra, batasuna eta sektoreko hitzarmena defendatzeko borondate irmoa erakutsi diogu Adegiri. Esperientzia luzeak erakusten digu patronalaren aurrean lan baldintza duinak defendatzeko gogor borrokatu behar izaten dugula. Oraingoan ordea, aurrekoetan baino indartsuago atera gara, egoerak ere hori eskatzen baitigu.

Lehenik eta behin, argi ikusi duguna da grebak eta mobilizazioak balio izan dutela. Adegik negoziazio mahaia blokeatuta zuen, soldatetan eta lan eskubideetan galera handiak ezartzeko proposamen lotsagarri batean tematuta. Greba izan da, hasteko, ipurdia mugiarazi diona, hori baita enpresariak ulertzen duten lengoaia bakarra. Baina hala ere, Adegiren helburua ez da aldatu. KPlaren oso azpitik dauden proposamenekin bueltaka aritzea da, sektoreko mobilizazioa baretzeko esperantzarekin. Horregatik jarraitu behar dugu orain borrokan eta greba egun gehiago eginez.

Inflazioaren gorakada itzela gure soldatak jaten ari da eta datozen urteetako aurreikuspenek igoera handiagoak iragartzen dituzte. Eta hori lantokietan lan karga eta patronalaren etekinak markatik apartekoak direnean. Tesuinguru horretan, Adegiri argi esan diogu Gipuzkoan 1.000 langile inguru biltzen dituen sektorean hitzarmen duin bat nahi dugula: KPlari lotutako soldata igoerak, lanaldiaren murrizketa, errelebo kontratuaren aplikazioa, ETTak mugatzea, genero berdintasunean aurrerapausoak nahi ditugu.



Fabrika handi nahiz txikietako jabeak enpresa itunen negoziazioak irekitzen ari dira arreta desbideratzeko, gu zatitzeko eta sektore mailako borroka ahultzeko. Greba eta mobilizazioak arrakastatsuak izan dira. Greba egunek %80ko jarraipena izan dute. Baina, hain zuzen ere, urrats tinkoa eman dugulako, lan handia dugu patronalaren estrategiari aurre egiteko.

Ezinbestekoa dugu lantegi guztietara joatea, handietara zein txikietara, planteamendu borrokalaria batekin, informatuz eta azalduz, langileen batzarrak antolatuz, mobilizazio plan sendo eta bateratua demokratikoki onartzeko. Ekintzara jo behar dugu, ahalik eta elkartuen eta sendoen.

Maila orokorrean, patronalari geroz eta beldur gehiago sumatzen zaio greba olde berrien aurrean eta langile borrokak ugaritzeko edo eztanda egiteko aukeraren aurrean. Hor daude, besteak beste, Britainia Handiko eta Estatu Frantseseko greba mugimenduak, edo joan den urriaren 15ean pentsionistek Madril-en egin zuten manifestazio handia. Orain da unea patronalaren maniobren eta xantaiaren aurrean ahalik eta batasun handienarekin erantzutekoa, KPlaren azpitik egiten diren akordioei ezezko argia esatekoa eta batez ere, greba orokorra ahalik eta zabalaren antolatzen hastekoa.



GAZTE ASANBLADA

Kurtsoa indarrez hartu dugu Anoetako Gazte Asanbladako kideok

Irailaren 3an Gazte Eguna ospatu genuen, belaunaldi berriari ongi etorria emanez. Goizean asanblada izan genuen gaztetxea aurkeztu eta hainbat gairen inguruan hitz egiteko. Ondoren, denon artean prestatutako paella bazkaldu genuen 60 lagun inguruk. Arratsaldetik aurrera, poteo musikatua, afaria eta gauean DJa izan genituen, txirrisklasa banatzen genuen bitartean.

Behin kurtsoa ofizialki hasi ostean urrifest antolatzen ibili gara. Urtero legez plaza hartu eta Euskal Herriko garagardo artisau ezberdinak dastatzeko aukera eskaini dugu; aurtan Hazparneko Etxeko Bobs Beer, Erronka-

riko Xorta, Azpeitiko Izar Haitz eta Goierriko Basabe izan ditugu. Bitartean, Trini Fox talde zestoarrak kontzertua eman zuen.

Hemendik aurrera ere badugu zer eskaini. Hasteko, azaroaren 11n Tasuri ta R rap kontzertua, Odeiren "Terapia" diskoaren aurkezpena eta Itzalen Sua drum and bass sesioa izango dira 22:30etik aurrera. Abenduaren 16an ere beste hiru talde izango ditugu gurean: Etxekalte, Comic Sans eta Boys Kissing Boys, 22:00etan hasita. Gaztetxeko atea zabali izango dituzue!

Hau da gaur-gaurkoz prestatuta duguna. Sare sozialetan eta kalean izango duzue gure berri!

ANTOLAKUNTZA ETA BORROKA



GIZARTE ZERBITZUAK

Anoetako adinekoentzako ttipi-ttapa egitasmoa martxan



Anoetako Gizarte Zerbitzuetatik 65 urtetik gorako pertsonen bideraturiko egitasmoa irailetik martxan da eta hileroko lehenengo asteazkenetan burutzen da.

Ekimenaren helburua: ariketa fisikoa egitea bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzea.

Horretarako, herrian paseoak antolatzen dira eta bukaeran hamaiketako eskaintzen da.

Hurrengo paseoa:

Eguna: Abenduak 14, asteazkena.

Ordua: 10:30etik 11:30era.

Lekua: Anoetako Herriko Plazan.

Paseoetan parte hartzeko izen-ematea Anoetako gizarte zerbitzuetan egin behar da.

- 943 56 92 13
- gizarte@anoeta.eus

ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU!



KULTUR ANIZTASUNA: ONGI ETORRI ANOETARA!

Udala berriro hasi da harrera saioak egiten herri-
ra bizitzera etorri diren pertsonekin. Saio hauen
helburua da etorri berriak ezagutzea, eta haien-
tzako interesgarria izan daitekeen informazioa
ematea: euskara ikasteko diru-laguntzak, hon-
dakin kudeaketa azaldu, udal eta eskualdeko
hainbat zerbitzuren berri eta kontaktuak eman
etab. Azken saioa azaroaren 8an izan genuen,
eta 10 lagun elkartu ziren, hainbat herrialdeeta-
tik etorrira: Txile, Nigeria, Brasil, Sahara, Nikara-
gua, Cáceres eta Madril. Ongi etorri!



ERREZETA

Kalabaza hummusa



**BERTAKOA
BERTATIK**

**BASERRI BIZIAK
DENEA BIZIAK
HERRI BIZIAK**

Udazkeneko fruitu izaten dira kalabazak, udaran zehar zaindu ondoren, urtaro honetan ematen da hauen uzta. Kalabaza hummusa egiteko errezeta proposatzen duzu hemen:



ITURRIA: <https://www.kirikinotaldea.eus/l/errezeta-kalabaza-hummusa/>

Osagaiak:

300g kalabaza egosi	olioa
100g garbantzua egosi	pippermina
baratxuria	gatza
	piperrautsa

Prestaketa:

1. Hasteko, kalabaza zatitan egosi lapiko batean edo labean.
2. Egin berdina garbantzuekin.
3. Bitartean, nahi adina baratxuri moztu zati txikitan.
4. Dena egosita dagoenean, hau da, bigun, batidoran nahastuko ditugu osagai guztiak: kalabaza, garbantzua, baratxuria, olio, pippermina eta gatza, eta dena txikituko dugu.
5. Bol batean jarri, pippermina edo espeziak bota gaintetik eta... **ON EGIN!**

Liburu-aurrekezpene

Jon Abril Olaetxea



ANOETA
Azaroak 21, astelehena,
18:30ean Liburutegian



AZAROAK 27, IGANDEA, 18:30
MIKELASAGASTI AUDITORIOA
SARRERAK SALGAI EGUN BEREAN
AUDITORIOAN 18:00ETATIK AURRERA. 5 €.

